

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2025EKO ABENDUAREN 02AN EGINDAKO OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:

Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atórrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:

Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
Miryam Vázquez Vecino
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchequi Gonzalez
Ricardo Crespo Rubio
Maria Jesus Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria

2025eko abenduaren 02an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

Gai zerrenda:

1. 2026 URTEKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA.
2. 2026 URTEKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA.
3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2026-2028 ONARTZEA.
4. HERNANIKO UDALAREN ETXEKO ZAINZTA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA.
5. 2026RAKO UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.
6. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA TRAFIKO LEGE-HAUSTEENGATIKO ISUNAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.
7. HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

1. 2026 URTEKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA.

Alkatea.-Alkatea: Arratsalde on. Bost minutuko atzerapenarekin, baina gaurko bilkura honetan egon behar dugun guztiok hemen gaude eta osoko bilkura honi hasiera emango diogu. Kasu honetan ohiko azken bilkura pasa den astean izan zenez, ez daukagu ez aktarik oraindik, eta ezta ohiko deialdietan ere pasatzen den dekretuen zerrenda ere. Gaurkoan, ez-ohiko deialdi honetan zazpi puntu izango ditugu lantzeko eta zazpi horietara mugatuko gara.

Lehenengoa, eta hauek badira urte bukaerarekin batera ekartzen ditugun onarpenak, 2026 urteko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea izango litzateke, bai Hernaniko Udalaren kasuan, baita Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren kasuan ere. Azkenean plantilla organikoa, lanpostuen zerrenda da udal langile guztiak bildu, antolatu eta hauen baldintzak zehazten dituen dokumentua. 2025ekoarekin alderatuz, 2026an hainbat aldaketa egin ditugu, eta aldaketa aipagarrienak zehaztuko ditut. Batetik, aurretik programetan zeuden bi plaza berri sortu ditugula eta hauek jada egonkortuko genituzkeela gure lanpostuen zerrendan: batetik, komunikazio teknikariarena eta, bestetik, ekonomia eta ogasun saileko administrariarena. Bestetik, hainbat aldaketa egin ditugu postu batzuetako Hizkuntza Eskakizunetan. Hala udaltzain agenteetan HE B2 izatetik C1 izatera pasako da, herri lanetako ofizialetan B1etik B2ra, eta zerbitzu

publikoetako peoien kasuan ere, B1etik B2ra. Hauek guztiak Hizkuntza Politika Sailburutzarekin kontrastea eginda daude eta oniritzia jasota dago, eta honek erantzuten dio, besteak beste, lanerako HE behar den gutxieneko horri; eta bat etortzea, baita ere, lanpostu hauetarako eskatzen diren titulazio mailekin lortzen diren HEei. Kasu batzuetan HE hauek genituelako behetik. Adibidez, lanposturen baterako Batxilergoa eskatzen bada, Batxilergoa euskaraz eginez gero jada C1 lortzen da eta gure kasuan, udaltzainen kasuan, B2 genuen. Orduan, hor badago egokitze bat eta baita udal honen hizkuntza errealitatera eta herri honen hizkuntza errealitatera egokitzeko pauso bat.

Beste aldaketa pare bat egin ditugunak lanpostu batean birformulazio bat egon delako eta Lan Prebentzio teknikariaren kasuan gaur egungo beharretara hobeto egokituko den profila diseinatu da, eta hainbat postu ezabatu edo amortizatu ditugu eta postu hauen amortizatzea lotuta dago erretiroa hartuko duten eta kasu batzuetan hartu duten langileen postuekin.

Hau horrela, aldaketa esanguratsuenak 2025eko plantilla organikoari dagozkionak. Ez dakit honen inguruan zerbait badagoen esateko... Ez badago ezer, zuzenean bozkatzera pasako gara. Tira, eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren kasuan, lanpostu bakarra da dagoena, arkitekto teknikoarena, eta ez dago aldaketarik. Baina bozketan Hernaniko Udalarena eta Ereñotzukoarena onartu behar ditugu. Hortaz, bozkatzera pasako gara. 2026 urteko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrendaren onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Eta abstentzioak? EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Hortaz, 2026 urteko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartuta gelditzen dira.

BOZKETAREN EMAITZA

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	13	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu (EhBildu) 3. Patxi Iburguren Etxeberria. (EHBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. (EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena. (EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca. (EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre. (EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes. (EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso. (EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. (EHBildu) 12. Jaione Aristregui Cao. (Elkarrekin Podemos) 13. Lurdes López Gorrotxategi. (Elkarrekin Podemos)
KONTRA		
ABSTENTZIOAK	6	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) 2. Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) 3. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 4. Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV) 5. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 6. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE)

OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ HARTUTAKO ERABAKIA

2025eko abenduaren 02ko Hernaniko Udaleko Osoko bilkuran Hernaniko Udaleko eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko 2026. urteko Lanpostuen zerrendak eta Plantilla organikoak onartzea proposatzen da.

Kontuan hartu da ANTOLAKETA BATZORDEAK 2025eko aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du

Lehenengoa: Hernaniko Udaleko 2026ko Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketaren proposamena onartzea.

Bigarrena: Hernaniko Udaleko 2026ko Lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoaren aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Hernaniko Udaleko web orrian (www.hernani.eus) argitaratzea.

Hirugarrena: Ebazpen hau langileen ordezkariari jakinaraztea.

2. 2026 URTEKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA: HERNANIKO UDALA ETA EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA.

Alkatea. Lanpostuen zerrenda onartzen dugun heinean ere, urtero honekin batera hurrengo urteko aurrekontua ere onartzen dugu. Kasu honetan ere, Hernaniko Udala eta Ereñotzu Toki Entitate Txikiko aurrekontuak onartuko genituzke. Prozedurei dagokionez, Ereñotzuko auzo udala bera da beraien aurrekontuak onartzen duena, guk ez ditugu eztabaidatzen; guk bide ematearen tramite hori egin behar dugu. Baina kasu honetan Hernaniko Udalaren aurrekontuan zentratuko gara.

Testuinguruan jartzeko, 2026ko aurrekontua 39'9 milioiko aurrekontua izango da. 2025ekoarekin alderatuz, %4'4 txikiagoa. 2026ko aurrekontuak izan du, beste urteetan alderatuz, koadratzeko edo osatzeko garaian beste baldintza bat: espainiar estatutik ezartzen den gastu arauarena. Gastu araua nolabait azaltzeko edo ulertu dadin, krisi garaian espainiar estatuak jarri zuen arau bat da, nolabait udalek edo administrazio publikoek zeukaten zor publiko handia eta zeukaten gastu hori kontrolatzeko. Egia da Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan hainbat salbuespen izan direla eta, gastu arau honen aplikazioak ez zigula hainbeste eragiten. Udal honen kasuan eta Hego Euskal Herrian udal askoren kasuan bezala, egoera finantzario ona izan dugulako, hortaz ez zigun hainbeste eragiten. Baina pandemiak geroztik, Hego Euskal Herriko lurraldeetan ere salbuespen horiek ere ezabatu egin dira. Hortaz, espainiar estatuan ezarrita dauden arauak bere horretan bete behar ditugu guk ere. Honek zer esan nahi du praktikan? 2026ko aurrekontuak erreferentziatzat hartzen duela 2025eko aurrekontua eta horrek gastu-muga bat markatzen duela. Nahiz eta gure egoera finantzarioa ona izan, nahiz eta nolabait ere egonkortasun finantzarioa izan eta dirua izan, ezin dugula nahi adina gastatu edo beharko genukeena edo irudituko litzaigukeena eta osoko bilkura honek onartuko lukeena, baizik eta gastu hori edo aurrekontu horren diseinua muga honen baitan egin behar dugula.

Baldintza hauek guztiak kontutan hartuta, udal gobernuak proposatu zuen aurrekontu proposamenak pare bat ildo zeuzkan. Batetik, zerbitzuen mailari eustea, hori argi ikusten dugu. Askotan esaten dugu Hernaniko Udalak zerbitzu estaldura oso ona daukala, badaudela zerbitzuak gainontzeko herrietan ez daudenak eta ematen ditugunak, eta hemen apustu garrantzitsua egiten dela azkenean administrazio publikoa delako zerbitzuen sarbide unibertsala bermatzen duen erakunde bakarra. Eta horretan indarra jartzen jarraituko dugu, beti jarraitzen dugun moduan. Zerbitzu estaldura mantendu eta batzuk hobetu egingo ditugu. Zaintza estrategia izango da, azken urteetan izaten ari den bezala, ildo nagusienetako bat. Etxeko laguntza zerbitzuaren hobekuntzarekin, batetik, eta bestetik, auzo zaintza zerbitzua egonkortuz. Beste puntu garrantzitsu bat elkarteek herrian egiten duten lana nabaria eta jakina da herria bizigarria izaten elkarteek egiten duten lana, eta hortaz, Udalarekin hainbat elkarteek duten hitzarmenetan hobekuntza batzuk aplikatuko ditugu. Eta aurrekontu hauetan markatu dugun bigarren ildoak etorkizuneko erronkei aurre egitea izan da. Hemen, erronka nagusietako bat trantsizio ekologikoa bada. Eta hor abiatu behar ditugun pauso garrantzitsuak eman ditugu, asko dago egiteko eta egingo ditugu, bai kontsumoa murriztu eta bai energia berriztagarria sortzeko. Gaur bertan hain justu eduki dugu energia eta klima aldaketaren aurkezpena eta hor argi gelditu da, urteetan zehar Hernaniko Udalak apustua egin duela neurri desberdinak hartu dituela, plan desberdinak exekutatu dituela, eta gaur egun eman diren pauso horiei esker bagaudela etorkizunera begira legeak ezartzen dizkigun helburuak baino anbiziotsuagoak diren helburuak markatzeko. Eta hori bada aurretik egindako lan guztiari esker. Baina, esan bezala, ez da bukatu, hau garrantzitsua da, jarraitu behar dugu eta aurrekontu hauek ildo nagusietako bat izango da.

Eta, bestetik, herria egokitzen jarraitzearena. Herria egokitzen jarraitzeko proiektu eta obrek jarraipena izango dute. Besteak beste, 2026an, dena ondo bidean, Elizatxo eta Kaxkoa lotuko dituen igogailuaren obrak hasiko dira. Ave Maria eta Zubipeko aldagelak eraberritzeko proiektuak lizitatuko ditugu, Elizatxo goiko parteko urbanizazio lanak egingo ditugu, eta Urumea ikastola zaharra zegoen eremuko lurrazpiko parkingaren eta kultur ekipamenduaren proiektua erabaki egingo da jada eta proiektuaren erredakzio hori martxan jarriko da.

Horiek udal aurrekontu honen ildo estrategiko garrantzitsuenak. Guk ulertzen dugu udal aurrekontu batek ez duela urtebeteko ariketa bat bakarrik egin behar. Hau da, aurretik esaten nuena, guk erronka batzuei erantzun ahal diegu aurretik egindako lanetari esker, eta aurrekontu bat diseinatzen dugunean epe labur eta ertainera ditugun erronkei erantzuteko aurrekontuak izan behar dutela. Eta hala diseinatu ditugu.

Esan bezala, proposamen hau azaroaren 6an Antolaketa Batzordean aurkeztu genuen udal talde guztien aurrean. Datu eta irizpide orokorrak azaldu genituen eta hor gastu arauak suposatzen duen muga edo baldintza ere azaldu genuen. Hor aipatu genuen partida berriak sortzeak zailtasun handiak izan zitzakeela, baina proposamenak landu genitzakeela eta jada sortuak zeuden partidetan lekua eduki zezaketela baldin eta nolakoak ziren eskaerak. Eta horrekin lotuta eta lehen esandako ideiarekin bat etorritik, hau da, aurrekontu batek ez diola erantzun behar bakarrik urtebeteko ekitaldiari, baizik eta ikuspegia eduki behar dutela epe labur eta ertaineko herriaren beharrak eta ildo estrategikoak markatzeko. Bada erabaki estrategiko horiek elkarrekin adosteko lanaketa markoa sistematizatzeko proposamena ere udal taldeei luzatu genien. Plenoetan ere askotan baloratu izan delako oso modu positiboan, modu honetan lan egiteak proiektuek eta hartu ditugun erabakiek emaitza hobek izaten dituztela. Baina horrek ez du zerbait puntuala izan behar, baizik eta nola marko hori sistematizatzen dugun eta udal talde guztiei, EH Bildu udal taldetik edo gobernu taldetik proposamen hori zabaldu zen.

Elkarrizketak egin dira udal talde guztiekin, zuzenketak aurkezteko epean EAJk eta Euskal Sozialistak udal taldeek erregistratu dituzte, eta horiek testuinguraketa egiteko hitzak, iruditzen bazaizue, erronda irekiko dugu ohikoa den bezala txikitik handira, eta udal talde bakoitzak bere posizioa adierazteko.

Jaiione Aristregi: Kaixo, arratsalde on, eta barkatu, ahotsa kaskar xamar daukat eta gaur.

Aurten gure taldeak ez die zuzenketarik egin 2026ko aurrekontuei, oso doitu daude, eta hemendik aurrera lan egiteko modua aldatuko genuela ulertu genuen; gure politika komun ildo estrategikoak landuko genituela. Hori esanda, gure taldeak ez du babestuko EH Bilduk aurkeztu digun aurrekontu proposamena, besteak beste, arrazoi hauengatik:

Uste dugu etxebizitzara bideratutakoa ez dela nahikoa. Diru gehiago banatzen zaio etxebizitzagaiak dinamizatzen dituen elkarte bati Udaleko sailari berari baino. 15.000 euro. 15.000 euro ez da ezer. Laster onartuko digute gune tentsionatuetan aplikatzeko plan estrategikoa, eta horrekin, positiboa izan arren, ez diogu irtenbiderik ematen etxebizitzarekin dugun arazoari. Anbizio handikoak izan behar dugu, eta alokairuko etxebizitza publiko eskuragarrien alde egin. Urte asko daramatzagu lurra enpresa pribatuaren esku uzten, eta horixe da orain daukaguna: haiek erabakitzen dute. Uste izan behar dugu etxebizitzan inbertitzea jendearengan inbertitzea dela. Horregatik, berriro errepikatzen dugu: alokairu eskuragarriko etxebizitza publiko gehiago, etxebizitza gehiago, abusuen aurkako babes gehiago, azken batean, etorkizunari buruzko ikuspegi gehiago. Etxebizitzaren gaia zintzilik daukagu.

Bestalde, ez gatoz bat Hernani Burujabe proiektuarekin. Ez gatoz bat udal-aurrekontuko diru publikoaren kopuru handiak ematearekin, eta ez dakigu gastu-fluxua jarraitzen. Ondo dago arduratuta dagoen herritar talde bat antolatzea proiektu honek hartzen dituen gaiak konpontzen saiatzeko, baina oso zorrotzak izan behar dugu diru publikoarekin.

Badakigu zer arazo dugun 2026an eta hurrengo urteetan, gastu-mugaren gaiarekin. Hori arazo bat da inbertsioak egiteko. Hala ere, esan behar dugu hori ez zela gertatuko aurreko urteetan inbertsio gehiago egin izan bagenu. Orain muga pixka bat handiagoa izango litzateke.

2025eko exekuzioari dagokionez, aitortu behar dugu hobetu egin dugula. Aurreko urteetan gutxi gora-behera %26 izatetik % 41 izatera igaro gara. Hobeia izan liteke, baina ez dago batere gaizki. Hemen sailen berregituraketa nabari da. Dena ez da negatiboa. 2026rako inbertsioak ere ez dira nahikoak. Ez gatoz bat zerbitzu publikoen pribatizazioarekin. Ez gara nekatuko esaten borondate politikoarekin eta ausardiarekin bermunizipalazatu litezkeela, adibidez, gaur bertan osoko bilkura honetatik igarotzen den kontratua, etxez etxeko arreta-zerbitzuarena.

Azkenik, borondate politikoa eskatzen dugu gure jaietan animalien aurkako tratu txarrekin amaitzeko. Gobernu-taldearekin izan genuen bileran, estrategia politikoak lantzeko ideia azaldu ziguten. Hau ondo iruditzen zaigu eta gure erroak argi utzi ditugu. Etxebizitza, etxebizitza, zerbitzu publikoak, ingurumena, aterpe klimatikoak eta zuhaitziak, birmunizipalizatzeko aukera serioa aztertzea, eta ez animaliei tratu txarrak emateko aukera.

Nolanahi ere, gaur gobernu-taldeari aurkeztu dizkiogun proposamenekin eskua luzatzen diogu hemendik aurrera landu ahal izan ditzagun.

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione.

Ricardo Crespo: Arratsalde on, guztioi.

Alkateak esan duen bezala, oso kontziente gara gastu-arauaz eta horrek mugatzen gaituenaz, inbertsioak egiteaz gain, 2026rako aurrekontuaren gastua banatzeko orduan. Udalak etorkizunari begira planteatzen dituen ildo nagusiak ere aipatu ditu, zeinak partekatzen ditugun, hala nola Gizarte Zerbitzuak, zenbait obra edo jasangarritasuna. Baina daukagun arazoa ez dira obra handiak, nola lurreratzen diren baizik. Lurreratze modu horretan daukagu desberdintasuna, beste obra askotarako planteamendu desberdinak ditugu; adibidez, Ave Maria, guk bere garaian sagarraren inguruan zerbait egitea proposatu genuena, edo Kulturgunea, beste kokapen bat hobesten baitugu guk.

Aurrekontuan badira historikoki partekatzen ez ditugun proposamenak. Eta horregatik erraza izango litzateke guretzat aurrekontu hauen aurka bozkatzea. Ez gatoz bat Hernani Burujabe garatzeko moduarekin, uste dugu ezin dela osoko bilkura hau eta Udala, erabakitzeko organo legitimoa, ordeztu; ez gatoz bat hondakinak biltzeko sistemarekin, aktiboki eta pasiboki esan dugu; aparkaleku-arazoak daudela uste dugu; auzo batzuek berrurbanizazioa behar dute... Beraz, erraza izango litzateke aurrekontu honen aurka bozkatzeko arrazoiak aurkitzea. Baina oraingo honetan baliagarriak izan nahi dugu, eta horregatik aurkeztu ditugu kopuru txikiak, proposamen txikiak, gure ustez herritarren egunerokoan eragina dutenak.

Guztira 270.000 euro aurkeztu ditugu zuzenketetan, eta gobernu taldearekin hitz egin eta elkarrekin lan egin ondoren, badirudi 127.000 euroko akordioa lortu dugula, gutxi gorabehera. Eta guk mugikortasunaren eta jasangarritasunaren inguruan kalifikatzen ditugun zuzenketak dira. Bidegorriak, Etxeberriko tunelari eta Sagastialdeko bideari buruzko zuzenketak edo proposamenak. 6 hilabeteko epea eman diogu geure buruari Sagastialdeko bide horretan egiten ari diren esku-hartzeen balorazioa egiteko, abiadura murriztu ahal izateko eta, horrela, eremuaren segurtasuna hobetzeko. Gainera, Haurreskola bertan daukagu. Irisgarritasunari dagokionez, oso gauza txikia dirudi, baina zebrabideetako koskak 2 cm baino altuagoak izateak asko zailtzen die irisgarritasuna gurpil-aulkiei eta haurtxoen autoei, adibidez.

Nik uste dut Atzietako hurrengo garapenean ekarpenak egin ahal izateko espazioak bilatzea adostu dugula, eta guk uste dugu espazio horretan modu askoz integralagoan eta naturalagoan egin behar dela. Kargagailu elektrikoren bat jartzeko aukeraz ere ari gara, eta badirudi kanpoko igerilekuen inguruan jarriko dela. Baina baita partekatutako auto bat ere, Ereñotzun adibidez, erabilgarria izan daitekeena. Orona inguruan komun publiko bat jartzeko aukeraz ere hitz egin dugu, eta bideragarria den ala ez aztertu beharko dugu.

Eta horrela, uste dut hamabi aldaketa egin direla, gobernu-taldearekin kontrastatu eta landu ahal izan ditugunak.

Beraz, berriro diot, kontrako botoa emateko arrazoiak ditugula uste dugun arren, baliagarriak izan nahi dugu eta horregatik aurkeztu ditugu zuzenketa hauek eta aurrekontuen alde bozkatuko dugu.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo.

Mikel Gurutzeaga: Arratsalde on, guztioi.

Lehenik eta behin, udal gobernuak epe luzerako diren erronka estrategikoetan elkarlanerako proposamena luzatu digu aurrekontuen negoziaketaren testuinguruan. Elkarlan hau legealdi honetan emaitza honekin aplikatzen ari da jada. Batzorde bereziak sortuz edo ordenantza batzuk elkarlanean landuz. Eta hau dena positiboki baloratzen dugu. Bide honetatik jarraitzea oso egokia ikusten dugu.

Aurkeztu zaizkigun hiru lan markoekin ados egon gaitzke, baina lan marko bakoitzaren gai eta lanketekin zalantzak ditugu eta hausnarketa eta elkarriketa gehiago eskatuko genuke, eredu indarrean jarri baino lehen. Gaurko aurrekontuen bozketaz harago, esan nahi dut.

Dena dela, 2026ko aurrekontuetara itzuliz, aurten dezepzionatu xamar gaude. Gure botoa aurkakoa izango da. Lau arrazoi nagusi ditugu erabaki hau hartzeko.

Lehenengoa, 2025eko akordioan Goiz Eguzkiko proiektuaren egoeragatik. Goiz Eguzkiko eremuan orain arte oso lan polita egin dugu elkarlanean, Portu-Elizatzoko igogailuaren proiektu osoa nabarmen hobetuz. Baina guk eremu hau beti ikusi dugu osotasun bat bezala. Goiz Eguzki egoitza bera eta bere inguruko erabilgarriak diren guneekin, igogailua eta parkea barne. Gure ustez, 2025erako lortu genuen akordioari dagokionez, Goiz Eguzkiko pabiloiaren gure proposamenaren akordioa itxuraz betetzen ari da. Baina orain esaten zaiguna motz geratzen zaigu. Berandu gabiltza 2025ean azterketa bat burutzeko eta guk argi daukagu pabiloi itxi bat dela egokiena Goiz Eguzkiko erabiltzaile eta herritar ororentzat. Orain daukagu hori bultzatzeko aukera. Nahiz eta ulertzen dugun udal gobernuak beste ikuspegi bat izatea. Dena dela, esandako azterketa horren zain egon gara eta 2026an ez zaio jarraipen argirik aurreikusten proiektu honi; ezta 2028 urtean, gutxienez, pabiloia eraikitzeko ere.

Bigarrena, gure aurtengo zuzenketak ez onartzea. Lau exekuzio proiektu idatzi eta etorkizunean lanak gauzatzeko proposamenetatik bat bakarrik eta partzialki, eman zaigu ontzat. Osinagako oinezkoen zubiaren proiektua idaztea. Hau ondo dago, eta espero dugu 2026an proiektu hau idaztea. Baina guk proposatutako lau proiektuak 2026an zehar 2025eko aurrekontuen likidazioaren gerakinekin egitea proposatzen dugu. Horietako bat aipatutako zubiarekin zerikusi handia duena eta 2028-2029ko inbertsioetarako funtsekin burutzea aurreikustea. Esaten dut 2028-2029, eta ez 2027. Gastu arauak ez duelako utziko urte horretan inbertsio hauek egiten hasten.

Hirugarrena, gastu arauari berari dagokionez, egia da 2024tik bete behar dugun arau berri hau ezarri zaigula eta Udalaren aurrekontuetan eragin zuzena duela. Eta, egia da baita ere, gaur egun mahai gainean daukagun inbertsio handietan ados gaudela. Baina guk dioguna da egitasmo eta inbertsio hauek guztiak aspalditik datozela eta ez direla zegokien garaian gauzatu eta/edo eraiki. Adibidez, kulture berria. 2011tik Urbieta kalean gauzatzeko onartua zuen EH Bilduk jada, eta ez zuen aurrera eraman. Kaxkoko lurpeko parkingari dagokionez, gaur egun eraikita egon zitekeen nahi izan bazenute. Baina hainbat legealdiko udal gobernuen ustez, hernaniarren ibilgailuentzat eta tokiko merkataritza bultzatzeko ez zen horrelako azpiegitura baten beharrik. Orain, duela gutxi gora-behera hiru urte, iritziz aldatu eta kulturgunearen eraikina Kaxkoan kokatzeko erabakia hartu da.

Ave Mariako proiektuarekin ere berdintsu gertatzen da. Aspaldiko proiektu bat da, gainera gure taldeak bere garaian proposatu zuen eraikin hau jasangarritasun sektoreko jardueretako zentro bat izan zitekeela eta proiektu hau ere atzeratzen ari da. Atzerapen guzti honek eragin handia du egungo egoera zaila azaltzeko. Batez ere, 2026 eta 2027ko urteena. Eta, gure ustez, azken urteetako ekintza ezaren eta kudeaketa txarraren ondorioz iritsi gara egoera honetara. Honek esan nahi du inbertsio berriak, guk zuzenketetan proposatutakoak barne, 2028ra arte gutxienez itxaron beharra.

Eta, laugarrena, bukatzeko, aipatu da, beste udal taldeek aipatu dute, Hernani Burujaberekin ere ez gaude ados. Gero eta gutxiago, gainera. Azken urte hauetan hartu duen norabidearekin eta aurrekontuetan daukan eraginarekin. Gero eta nabarmenagoa iruditzen zaigu hernaniar gutxi batzuen esku geratzen direla arlo garrantzitsuetako erabakiak. Udaletxearen eskumenen ginetik.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel.

Ni pozten naiz eta ondorio bat ateratzen dut, besteak beste, ez du inongo proposamenik edo zuzenketarik egin zerbitzu publikoak indartzeko edo zerbitzuen hobekuntzarako. Horrekin egiten dudana irakurketa da gainontzeko udal taldeek, nahiz eta ez aipatu, ulertzen duzuela zerbitzu estaldura ona daukala Udal honek, zeren proposamen gehigarriak ez baituzue egin. Eta lehen aipatu dudana, bada Udal honek daukan indarguneetako bat. Estaldura ematen duguna zerbitzu berriekin.

Gero, aipatu direnak. Slogan-etik aparte eta badakigu batzuetan zer tokatzen den egitea, guri dagokiguna da, eta beti egiten dugun ariketa da, errealitatera jaitea. Errealitate bat da etxebizitzara dedikatuta ez daudela 15.000 euro, baizik eta 247.000 euro, Hernaniko Udalean. Etxebizitza publikoak Hernaniko Udalak dituen etxebizitza publikoak eta tartean etxebizitza sozialak, inguruko herrien ratioak baino gorago ere badaude. Eta hor Elkarrekin-Podemosek aipatzen duen apustuan, badakizue Florida 08 eremuan alokairuko etxebizitzak gauzatu ahal izan dadin Eusko Jaurlaritzarekin egiten ari garen lanketa. Eta hori aipatzea ahaztu egin zaizue. Ez dakigula errealitate bihurtuko den, ez dagoelako, neurri handi batean, gure esku. Baina badakizue, hori batzordeetan aipatu baitugu.

Orokorrean, exekuzio gaitasuna aipatzen da. Aurretik exekutatu ez delako gaudela gastu arauaren egoera honetan. Gastu araua indarrean sartzen da pandemiaren geroztik. Pandemia ondoren jada indarrean sartzen da lurralde guztietan, beraz, azken urteetan berdin-berdin tokatuko zitzaigun gastu arauaren baitan aurrekontuak egitea. Kasu honetan, urte honetan tokatu da. Eta, hau gainera, orain dela urtebete azaldu genizuen, planifikatuta zeterren kontu bat badela. Esaten dugu, kudeaketa txarra esan duzue, baina kudeaketa txar horri esker Hernaniko Udalak dauka daukan zerbitzu estaldura maila, herri askok ez daukatena eta ematen ditugu herri askok ematen ez dituzten zerbitzuak; eta daukagu, begira, etorkizunerako dauden inbertsio handietan pentsatzeko gaitasuna eta aukera. Hori da Udal honek daukan indargune bat, eta hori da, seguru, egin den kudeaketari esker. Zerbitzu publiko indartsuak eta etorkizunera begira dauden erronkei aurre egiteko gaitasunak, gaur egungoak ahaztu gabe.

Elkarrekin-Podemosek aipatu duen kontuetako batean, egia da, lanketa estrategikoan ildo batzuk aipatu direla eta gero etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioaren gaia badator, zuen proposamenetan ezin dugu bat ontzat eman: esaten duzuenean "estudiar seriamente la posibilidad de remunicipalizar los servicios públicos" baieztapena. Agian zuen kasuan izango da orain arte ez duzuela seriozki aztertu. Ze udal gobernu honek eta udal honen ekipo juridiko eta teknikoak bai. Eta baieztapen hori ezin dugu inondik inora ontzat eman eta ezin dugu gutxietsi udal teknikari juridikoek egin duten lana eta ezta gobernu talde honek eta aurrekoek egin duten lana ere.

Eta, bestetik, eta honek atentzioa deitu dit, garbiketako langileen artean egiten duzuen bereizketa: proposatzen duzuen publikazioa da ikastetxeetako garbitzaileena bakarrik, eta udal honen zerbitzuenpean garbitzaile askoz gehiago daude. Hori behintzat ezin dugu ontzat eman eta horregatik aipatu dizuet, akordiorik ez dagoela hori ezin dugulako ontzat eman.

Eta gero ados egon gaitzke beste kontu askotan. Etxebizitzarenean argi eta garbi denok daukagu garbi gure erronka nagusietako bat dela gune tentsionatu izendatzeko diagnostikoa eta ekintza planak aho-batez onartuta daude, eta hor badaude ekintza asko eta asko martxan jarri ditugunak eta jarri beharko ditugunak. Baina argi eduki behar dugu eskumenak zeinenak diren ere, eta errealistak izan behar dugula, udalei ezin zaizkiela eskatu beraien eskumenak ez diren kontuak. Gure eskumenak betetzeko bitartekoak ere behar ditugulako. Eta jakinda ildo estrategiko bat dela.

Gero, egia da Euskal Sozialistak egindako ariketa eskertzekoa dela. Azken urteetatik hona aldaketa ikusi da egin den aurrekontuetan eta puntu errealistetan, nahiz eta behin eta berriz aipatu beharra izan, arrazoiak badaudela kontra egiteko. Baina, zorionez ez duzue kontra egin, baizik eta alde, arrazoiak ere badaudelako alde egiteko.

Horrez gain, EAJtik esan diren kontuetan, kudeaketarena aipatu dut... Inbertsioen kasuan portzentaje batzuk aipatu dira, 2025eko inbertsioen exekuzio maila %58 ia. Fakturak jaso %32, proiektuak luzeak izaten direlako, baina %58; aspaldiko urteetako handiena eta gorako bidean dagoen tendentzia da. Beraz, ondo doazen seinale. Goiz Eguzkiko parkearen azterketan egin duzue nolabait desadostasunak egongo balira bezala... Esan duguna da itsu-itsuan gauzak egin beharrean aztertu eta erabilgarritasuna aztertu behar dela, arduraz jokatu behar dela zentzu horretan, eta ez onartzea onartzeagatik.

Oinarrian hori aipatzen denean, behin eta berriz esango dut, Hernani Burujaberekin ez gaude ados eta zuei zuzenean esan dizuet, herritarren partaidetza prozesu hobe bat baldin badaukazue, aurkeztu eta aztertuko dugu. Hernani Burujabek lau urte bete berri ditu. Hernani Burujabek jaso ditu errekonozimenduak. Hernani Burujabek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jaso ditu. Eta ez da batere sospetxosoa. Eta, besteak beste, modu honetan eta herritarrekin elkarrekin diseinatzen eta eraikitzen egiten diren proiektuek, eta aurrekoan batzordean honetaz hitz egin genuen, gogoratzen bazarete; inpaktu ekonomikoaz gain, inpaktu soziala badute. Eta inpaktu sozial hori neurtzen jakin behar dugu. Esan genizuen, eta erronketako bat hori da, modu honetan lan egiteak inpaktu sozial bat badauka, bere garaian datuetan EnHerKomekin egindako hitzarmenak daukan bezala. Eta gogoratzen dizuet EnHerKom jai zela Hernani Burujabe prozesuari esker, besteak beste.

Berriz ere gonbitea partaidetza maila honetako, arlo akademikoan horrelako errekonozimendua arlo politiko eta teknikoan horrelako errekonozimendua daukan mailako partaidetza prozesu edo egitasmorik baldin badaukazue, ongi etorria izango da, aztertuko dugu eta balorazio positiboa baldin bada, noski, martxan jarriko da. Gaur-gaurkoz, azken lau urteetan, Hernani Burujabe jai zenetik lau urte hauetan ez da beste ezer jaso.

Bigarren erronda irekiko dugu, ondo iruditzen bazaizue.

Jaione Aristregi: Komentatzeko besterik ez. Etxebizitzari eta, batez ere, Florida 08 eremuari dagokionez, bazen Udala alokairuko udal-etxebizitzak izateko negoziatzen ari zen eraikin bat. Azken bileran esan ziguten hori blokeatuta zegoela, eta ziurrenik ez zela egingo, oso zaila delako. Orduan, hori egingo ote den zalantza handiak ditugu.

Birmunizipalizazioari buruz eskolen eta Haurreskolaren garbiketa zerbitzuak aipatu ditugu, oinarritzko zerbitzuak direlako. Eraikin publikoen garbiketa ez da oinarritzotzat jotzen. Hori lehen urratsa izan liteke, gero gainerako birmunizipalizazioa egin ahal izateko.

Eta, zonalde tentsionatuen gaiari dagokionez, uste dut gune tentsionatuetan neurri guztiak gauzatzeko eskumena Udalak duela. Beraz, maizterrak babesteko gauza asko praktikan jarri beharko dira.

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione.

Ricardo Crespo: Nik gauza bat bakarrik. Zure lehen hitzak izan dira esateko oposizioko alderdiek ez ditugula zerbitzu publikoei buruzko emendakinak aurkeztu, eta hortaz, badirudi dauzkagun zerbitzu publikoak ontzat ematen ditugula. Eta hala da, ontzat ematen ditugu. Estaldura oso ona daukagu zerbitzu publikoetan eta zerbitzu sozialetan. Baina emendakinak ez sartzeak ez du esan nahi ez ditugula hobetu behar. Urte askotan esan dugu, adibidez, kale garbiketa hobetu beharra daukagula, adibidez, niri atzo kexa bat iritsi zitzaidan esanez zaborrontzi batek leku oso konkretu batean egunean behin jasotzen dela eta jende asko pasatzen den lekua denez, beti betetzen dela. Eta, badirudi, Udalar jada eskatu diotela behin baino gehiagotan hori jasotzea posible den. Hori egiteko ez da emendakin bat behar kopuru zehatz batekin, baizik eta lanaren berrantolaketa bat. Eta, berriro diot, askotan esan dugu hori beharrezkoa dela eta ez bakarrik kopuruak sartzea.

Hau esanda, guk nahiago dugu behintzat gaurkoan akordioetan zentratzea eta eskertzen dugu gobernu taldeak izan duen jarrera akordioa bilatzeko.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo.

Mikel Gurutzeaga: Ildo beretik, Ricardok aipatu duen bezala, zerbitzu publikoen eta zerbitzu sozialen inguruan ez dugu ekarpenik egin zuzenketetan, baina orokorrean ados gaude Hernanik eskaintzen dituen zerbitzuetan, baita, adibidez, zerbitzu sozialetan beste erakundeekin batera. Horrek ez du esan nahi eguneroko lanean gauzak ez direla hobetu behar eta batzordeak ere horretarako daude urtean zehar. Eta aipatzen ditugu hainbat alditan, hobetu beharreko gauza batzuk. Batez ere, agian, garbiketaren kontuan Ricardok esan duen bezala.

Esan duzu hobetu dela exekuzioaren ehunekoa azken urte hauetan. Bai, baina guk esaten duguna da urteak daramatzagula inbertsioak aurrera eramán gabe; eta orduan, orain inbertsio horiek gauzatzeko momentua iritsi omen da, baina aurretik ere horietako bateren bat egin egon zitekeen. Eta, orain aurreikusi zitezkeen, agian, inbertsio berriak. Demagun, Gudarien Plazako obra.

Hernani Burujaberi buruz, esaten duzue beti irekita dagoela, baina ez dakit, guk sentitzen dugu zaila zaigula modelo horretan parte hartzea. Adibide bat jarriko dut: orain dela hilabete batzuk egon zen kanpaina bat karteekin, uste dut irailean izan zela, Bidea elkarteak sinatzen zuen eta kartela zen ostiko bat ez dakit zeni eta esaten zen "ostikoa kapitalismoari". Aipatzen ziren, baita ere, erakundeak, EnHerKom eta beti aipatzen dituzun horiek, arlo tekniko horiekin esaten dizuegu beti ados gaudela, baina ez dugula ikusten txapela horren barruan egon behar dutenik. Baina irudia, mezua zen ostikoa. Nik uste dut horrelako irudiek ez dutela batere laguntzen jende gehiago erakartzeko. Are gutxiago guk bezala pentsatzen duten pertsonak. Niretzat adibide bat da. Agian ez da garrantzitsua, baina esaten duzuenan irekita dagoela, ikusten dugu betiko jendea dela eta betiko jende horrek erabakiak hartzen dituela. Ados gaude tokiko energia komunitate proiektuekin, lehenengo sektorearen elkarteekin, hainbat elkarterekin, Amher bezalako elkarteekin... Baina ez dugu beharrik ikusten horrelako egitura bat sortzeko. Nik uste dut lana egin dezakegula beste modu batera, horrelako egitura bat sortu gabe. Eta proiektu guztiak aurrera aterako lirateke. Gehienak. Denak, pentsatzen dut akaso. Zaintza ere bai, oso garrantzitsua dela onartzen dugu, eta Udalak eskaintzen du zerbitzu sozialetan zerbitzu hori. Baina Udalak berak antolatu eta erabakiak berak hartu behar ditu. Orduan, uste dugu tokiko proiektuak aurrera atera behar dutela, baina ez dugu ikusten egitura honen beharrik. Are gutxiago, horrelako irudiak eta mezuak zabaltzen direnean jendea erakartzeko. Nik uste dut jendea urrundu egiten dela horrelako kartelak ikusita.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel.

Uste dut argi gelditu dela eta pozten nau, behingoz, molestatzen duena da kapitalismoa kritikatzeko. Hori da.

Mikel Gurutzeaga: Ez...

Alkatea: Barkatu e, kapitalismoari ostikoa irudikatzen duen elkarte batek egindako kartela baldin bada horrelako prozesu parte-hartzaile batean parte ez hartzeko arrazoia, ados. Eta askotan esan izan dugu, ez duzue EAJk ulertzen den da horretan ez sinestea eta partaidetzan ere ez sinestea Hernaniko EAJk. Zeren Gipuzkoako Foru Aldunditik lan-ildo bat badago herrietan bultzatzen dena. EAJri entzun izan diogu partaidetza "lau urtetik behin aukeratzen gaituzte eta Alkatearekin hitzorduak eskatu daitezke". Bueno, partaidetza ulertzeko modu desberdinak daude. Oinarrizko beharrei erantzuteko modu desberdinak daude. Argi gelditzen da EAJri kapitalismoa kritikatzeko ez zaiola gustatzen, eta argi dago Hernani Burujabe prozesuak egin duena dela, eta hori zerbitzu desberdinekin ikusi dugu, oinarrizko zerbitzuak eta oinarrizko beharrei erantzunak eman, irabazi asmorik gabeko herriko eragileekin. Eta horrek dauka izugarritzko balio soziala. Baloratu nahi ez duzuen. Nahi ez duzuen. Honetaz hitz egin dugu. Hori baldin bada kritika handiena prozesu honek daukana, oso ondo goaz.

Honekin bozketara pasako gara. Gogoratu hemen Ereñotzuko aurrekontuak barne hartzen ditugula eta biak daudela bozketari berean. Ereñotzuko aurrekontuak auzo udalak lantzen dituela

eta guk tramite horri bide ematen diogula, baina horren eztabaidan ez garela sartzen. Hortaz, 2026ko aurrekontu orokorra onartzearen aldeko botoak? EH Bildu eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrako botoak? EAJ eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Beraz, 2026ko aurrekontu orokorra onartutzat ematen da.

Bozketaren emaitza

-

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	13	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu (EhBildu) 3. Patxi Iburguren Etxeberria. (EHBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. (EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena. (EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca. (EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre. (EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes. (EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso. (EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. (EHBildu) 12. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 13. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE)
KONTRA	6	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) 2. Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) 3. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 4. Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV) 5. Jaione Aristregui Cao. (Elkarrekin Podemos) 6. Lurdes López Gorrotxategi. (Elkarrekin Podemos)
ABSTENTZIOAK	0	

OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ HARTUTAKO ERABAKIA

Alkateak, azaroaren 6ko Antolaketa batzordean Hernaniko Udalaren 2026ko Aurrekontu Egitasmoa aurkeztu zuen.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Auzo Batzarrak azaroaren 17ko saioan aurrekontua onartzeko ebazpena eman zuen.

Kontuan hartu dira Lanpostuen Zerrendan eta plantila organikoan onartutako aldaketak.

Kontuan hartu da Kontu-hartzaileak egindako txostena.

Aurrekontu proposamenari zuzenketa eta aldaketa hauek aurkeztu dira:

- EAJ Zuzenketa partziala. Ez da onartu.
- PSE-EE zuzenketa partziala. Ez da onartu.
- Kontuhartzailearen zuzenketa teknikoak jaso dira.
- LAB-en eskaera jaso da, UNRWA erakundeari dirulaguntza.

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko azaroaren 27an emandako irizpena

Hori horrela, Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du

1.- Hernaniko Udalaren 2026ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea, erakunde eta kapitulukako banaketa honekin: Hernaniko Udala eta Ereñotzuko Toki Entitate

Txikia.

SARRERAK kapituluka	HERNANIKO UDALA	EREÑOTZU erakundea	BATERATUA 2025
1	8.194.800,00	0,00	8.194.800,00
2	525.000,00	0,00	525.000,00
3	9.300.600,00	14.700,00	9.315.300,00
4	21.062.100,00	597.100,00	21.072.100,00
5	633.100,00	100,00	633.200,00
6	143.500,00	0,00	143.500,00
7	45.000,00	0,00	45.000,00
8	11.000,00	100,00	11.100,00
9	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	39.915.100,00	612.000,00	39.940.000,00

GASTUAK kapituluka	HERNANIKO UDALA	EREÑOTZU erakundea/entidad	BATERATUA 2025 Consolidado
1	13.767.100,00	76.700,00	13.843.800,00
2	20.155.500,00	311.700,00	20.467.200,00
3	0,00	0,00	0,00
4	3.958.305,00	116.500,00	3.487.705,00
5	458.845,00	0,00	458.845,00
6	1.564.350,00	107.000,00	1.671.350,00
7	0,00	0,00	0,00
8	11.000,00	100,00	11.100,00
9	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	39.915.100,00	612.000,00	39.940.000,00

Aurrekontua osatzen duten edukia eta dokumentuak (21/2003 Foru Arauaren 6. Artikulua):

- Eskubide ekonomikoak.
- Betebehar ekonomikoak.
- Funtzio programak.
- Memoria.
- Konpromiso kredituen eranskina. (Ez dagokio).
- Inbertsioen eranskina.
- Transferentzia arruntak eta kapitalekoen eranskina.

- Zorpetzeari buruzko eranskina. (Ez dagokio).
- Pertsonalaren eranskina. Aurrekontu Plantila.
- Diruzaintzako gerakin lotuarekin finantzatutako gastuen eranskina (ez dagokio).
- Lanpostuen Zerrenda eta Plantila Organikoa.
- Aurrekontua Gauzatzeko Araua, eta honen barne, Kontu-hartze kontrola eta Barne kontrolaren Gida (Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 17. Atala).
- Azken ekitaldiko likidazioa, eta urtekoaren aurrerapena.
- Menpeko erakundearen aurrekontua: Ereñotzu Toki Entitate Txikia.
- Aurrekontu Bateratua.
- Kontuhartzailearen Ekonomia finantzazko txostena.

Dokumentazio gehigarria:

- Genero txostena.
- Bitarteko propioen eranskina.
Garbitania Zero Zabor SL bitarteko propioaren Aurrekontua eta Hernanirako Jarduera Plan Orokorra.

2.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost lanegunez. Aipatutako epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrekontua behin betiko onetsizat joko da; bestela, Udal Batzarrak hilabeteko epea izango du haiek ebazteko.

3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2026-2028 ONARTZEA.

Alkatea. -*Honekin hirugarren puntura pasako gara. Diru-laguntzen plan estrategikoari dagokion puntua da. Hemen aurreko Antolakuntza Batzordean ere aipatu genuen, Hernaniko Udalak edo edozein administrazio publikok edo edozein udalek diru-laguntzak eman ahal izateko aurretik plan estrategiko bat onartu behar du 38/2003 lege orokorrak adierazten duen moduan. Orain arte indarrean daukagun diru-laguntzen plan estrategikoa 2023-2025 epealdikoa da eta, orain onartzera goazenak, 2026-2028ko epealdia izango du. udal batek eta, gure kasuan, Hernaniko Udalak diru-laguntza tipologia oso desberdinak ematen ditugu: hasi elkartegintza bultzatetik norbanakoaren oinarritzko beharrei erantzun ahal izateraino. Denak ere interes publiko eta gardentasun baten baitan. Eta plan horiek horretara bideratzen dira, gardentasun ikuspuntu batetik eta aurrekontu orekaren printzipioak errespetatuz antolatu ahal izateko diru-laguntza hauek guztiak. Azken ekitaldietan, azken urteetan indarrean izan dugun diru-laguntza plan estrategikoa litzateke. Aldaketa berezirik ez dago, ahalbidetzen digulako gaur egun martxan ditugun diru-laguntza hauek ematen jarraitzea. Ez dakit honen inguruan aipatzeko zerbait ba ote dagoen.*

Jaione Aristregi: Diru-laguntzen plan estrategikoari dagokionez, gure taldea abstenitu egingo da. Ezin dugu aurka egin, asko benetan beharrezkoak direlako, baina ez gaude ados beste batzuekin. Goiz Eguzkiri ematen zaiion zenbatekoa ez da nahikoa. Pixka bat handitu zaiola badakigun arren, oraindik ere ez da nahikoa, jarduera gutxiago eta dezente diru gehiago jasotzen duten beste elkarte batzuekin alderatuz gero. Elkarte honek lan ikusgarria egiten du nahi ez den bakardadearen prebentzioan.

Bestalde, ez gaude ados Etxegura, Bertatik elikatuz, Bidea elkarte... bezalako elkarteak diruz laguntzarekin, ez dakit zuek erantzun ahal izango diguzuen, langileak hautatzeko prozesuak nolakoak izan diren jakin nahiko genuke. Aukera-berdintasuna bermatu da? Abstenitu egingo gara.

Alkatea: Udalak hitzarmenak egiten dituen hiru sektoreko eragileekin, eta eragileak kasu honetan elkarteak izan edo beste motatako eragileak izan, Udala ez da beste eragileen hautaketa prozesuetan sartzen. Berdin-berdin izan Goiz Eguzkik norbait liberatua izango balu, izan CDHK norbait liberatua baldin badu eta baditu, edo izan, kasu honetan, Bidea izan edo beste elkarteren bat. Udalak ez dauka eskumenik hitzarmenak egiten dituen hirugarren elkarteekin horretan sartzeko. Hitzarmen horietan jartzen dena da ze baldintzak bete beharko liriatekeen. Berdintasun printzipioak, hizkuntza eskubideei dagokiena, etab. Baina inondik inora ezin dugu

egin hori, Udalak dauzkan zerbitzuetan eta kontratatzen diren enpresen hautaketa prozesuetan sartu ezin dugun bezala. Ezin dugu horretan sartu.

Beraz, hitzarmenak lotzen dutena da ze helburu edo ze interes publikori erantzungo zaion lankidetzat hitzarmen horren bidez. Baina hautaketa prozesuan Udalak inondik inora ezin du hor sartu.

Jaione Aristregi: Ez dakigu hautaketa prozesurik egon den, ezta? Aukera-berdintasunarekin. Hau da, adibidez, Bideak lanean dituen pertsonak ez ditu zuzenean aukeratu, baizik eta hautaketa-prozesu bat igarota. Azkenean udal-diruaz elikatzen den erakundea delako. Beraz, hautaketa-prozesuak nolakoak izan diren jakin nahiko genuke.

Alkatea: Berriz esango dizut, edozein eragiletan, aipatu dituzuen hainbat eragiletan deialdiak publiko egin izan dituzte. Eta komunikabideen bitartez, orain buruz gogoratzen naiz, komunikabideen bitartez gurekin hitzarmena daukan eragileren batek deialdia egin izan du profil konkretu baten bila zebiltzalako. Edo Lanbideren bitartez. Baina berriz diot, guk ezin dugu horretan sartu. Hernani Burujaberekin lotu nahi duzelako kontu hau, baina esango dizuet, Hernaniko Udalak hitzarmena daukan edozein eragilerekin ezin dugula horretan sartu. Guk markatzen ditugunak dira, interes publikoari begira, bete beharko liratekeen funtzioak eta bete beharko liratekeen profilak. Baina hautaketa prozesuan eta, kasu hauetan aipatu dituzuen adibideetan, deialdiak modu publikoan egin dituzte.

Gainontzeko udal taldeek zerbait? Ez badago beste ezer, bozketara pasako gara. Diru-laguntzen 2026-2028 epealdiko plan estrategikoaren aldeko botoak? EH Bildu udal taldearenak. Kontrakoak? Ez dago. Eta abstentzioak? EAJ, Euskal Sozialistak eta Elkarrekin-Podemos udal taldeenak. Beraz, onartutzat ematen da diru-laguntzen plan estrategikoa.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	11	<ol style="list-style-type: none"> 1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu (EhBildu) 3. Patxi Ibarguren Etxeberria. (EHBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. (EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena. (EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca. (EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre. (EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes. (EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso. (EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. (EHBildu)
KONTRA	0	
ABSTENTZIOAK	8	<ol style="list-style-type: none"> 1. Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) 2. Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) 3. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 4. Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV) 5. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 6. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE) 7. Jaione Aristregui Cao. (Elkarrekin Podemos) 8. Lurdes López Gorrotxategi. (Elkarrekin Podemos)

HERNANIKO OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ HARTUTAKO ERABAKIA:

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak diru-laguntzen bidezko gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko tresna eta kudeaketa-elementu gisa ezartzen du Administrazio Publiko bakoitzean Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatu behar dela.

Gaur egun indarrean dagoen planaren indarraldia 2023-2025eko ekitaldietarako da. Hori horrela, plan berria onartzea dagokio Udalari.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorrekotzat hartzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira. Era berean, Administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzeta-prozedura bat ere badira, interes publikoko jarduerak kudeatzeko. Izaera askotako dirulaguntzak daude, prozedura konplexuen bidez ematen direnak, eta, beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorrak egin behar zaizkie.

Horrela, Plana diru-laguntzen emanketa gardentasunaren eta aurrekontu-orekaren printzipioak errespetatuz antolatzeko beharrezko osagarri gisa eratzen da. Plan hau hainbat urtetarako balio dezan prestatu da, eta urtero egin beharreko berrikuspenak egingo zaizkio.

Kontu-hartzaileak txostena egin du.

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko azaroaren 27an gehiengoz emandako irizpena
Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak gehiengoz erabaki du

- a) Diru-laguntzen plan estrategikoa 2026-2028 onartzea.
- b) Planaren testu osoa argitaratzea, Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubideko Oinarrien Legeak 70.2 artikulua xedatzen duen moduan.

4. HERNANIKO UDALAREN ETXEKO ZAINZA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA.

Alkatea. *-Laugarren puntura egingo dugu salto, lehen aipatu dugu zerikusia daukala Hernaniko Udalaren etxeko zaintza zerbitzuaren kontratua esleitzearekin. Orain dela pleno batzuk zerbitzua kontratatatu ahal izateko oinarriak ekarri genituen prozesu hau martxan jartzeko. Dokumentazioarekin batera bidali zaizue Kontratazio Mahaiko akta. Esan, prozesu honetan hiru enpresek aurkeztu dutela beraien proposamena. Enpresa bat prozesutik kanpo utzi da gutxieneko puntuazio teknikoak lortu ez duelako, eta lehiatu duten beste bien artean, Aurrerantz Sociedad Cooperativa izan dela puntuazio handiena lortu duena. Hortaz, gaur plenora dakarkiguna da formalizatu ahal izatea edo hurrengo bide ematea pleno honek, kontratua sinatzea kooperatiba honekin. Kooperatiba honek behin irabazle suertatuta, aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu duela eta ezarri beharreko bermea, buruz ari naiz, baina 86.000 euroko bermea, ezarri duela. Beraz, formalki pasako genuke plenotik onartu ahal izateko eta 15 eguneko epe bat irekiko litzateke egon daitezkeen gainontzeko errekursoak egoteko. Honekin ahalbidetuko genuke urtarilaren 1etik aurrera kontratu berria indarrean jartzea. Honen inguruan erronda irekiko dugu.*

Jaione Aristregi: *Hau ez da berri ematea, ezta?*

Alkatea: *Ez, bozkatu egin behar dugu.*

Jaione Aristregi: *Bale. Gure taldea abstenitu egingo da puntu honetan. Batzordean esan genuen bezala, kontua ez da ez gaudela ados pertsona horien lanpostuak hobetzearekin, baizik eta ezkerreko politika batzuek harago joan behar dutela eta zerbitzu horiek bermunizipalizatzeko urratsak eman behar dituztela. Adibide gisa, azkenaldian pixka bat arakutzen aritu gara, eta Barakaldoko EH Bilduko zuen lankideak ekarri ditugu adibide gisa. Izan ere, haien web orrialdeak honakoa dio: "egungo eredu pribatizatzaileak errentagarritasun ekonomikoa lehenesten du errentagarritasun sozialaren aurretik, langileentzako baldintza okerragoak sortuz, eta horrek zuzenean eragiten dio zerbitzuari". Era berean, bermunizipalizatzeko borondatea iragarri du, hala nola etxeko laguntza zerbitzua, esku-hartze soziala, kiroldegiko mantentze-lanetako langileak edo garbiketara.*

Ildo beretik, EH Bildu Gasteiz, Abanto, Basauri... Orduan, ideia bat datorkigu burura, eta horrek adieraz diezaguke EH Bilduk gobernatzen duen tokietan zaila edo ezinezkoa dela bermunizipalizatzea, eta gobernatzen ez duen tokietan aukera bat dela.

Dagoeneko mugitzen ari dela zerbitzuen birmunizipalizazioaren gaia, zuen alderdiaren barruan.

Alkatea: Eskerrik asko, Jaione. Beste inork zer bait aipatzeko?

Eta EH Bildu Hernanik ere bai. Berriz esango dut, eta ez dakit zenbat aldiz esango dudan, jende guztia nazkatuko da: eta EH Bildu Hernanik ere bai. Gure gobernu programak ikusten baldin badituzue, zuek behin eta berriz esaten duzue eta gaur ahaztu egin zaizu, zuek esan izan diguzue "EH Bildu Hernanik esan izan du bermunizipalizazioaren alde...". Eta berriz ere esaten dugu: bai.

Baina esan duzu, ezkerreko politikak. Ezkerreko politiken ezaugarrietako bat badakizu zein den? Langileekin esertzea. Langileak entzutea. Egon zarete etxez etxeko langileekin? Zuek ez zarete egon. Gu bai, gu egon gara beraiekin. Eta neurri honek eta kontratu honek zer suposatuko duen irakurri duzue kontratua?

Jaione Aristregi: Badakigu hobekuntza asko dituela. Hori badakigu. Baina publikatzen bada, seguru aski, baldintzak hobeak izango lirateke.

Alkatea: Alegia, ez duzuela irakurri. Esan didazunarekin argi gelditzen da ez duzuela irakurri. Guk azaldu izan dugunean prozesu hau guztia, kontratua eta plegu hauek diseinatzeko garaian, edo ez zarete adi egon, edo ez diguzue entzun. Gaur egun bermunizipalitzatu izan bagenu etxeko laguntza zerbitzua langile horiek baldintza okerragoetan geldituko zirela esan izan baitizuegu. Eta berriz ere plenora dakarkizue slogan moduan.

Hortaz, EH Bildu Hernanik ere bai. Baina EH Bildu Hernanik gobernuan dagoenez eta kudeatzen ari denez, bide hori lantzen du eta ezin den bitartean hobekuntzak txertatzen ditu. hori delako guk hartu dugun konpromisoa eta langileekin egin dugun lana. Lehenengo aldiz ez, baina ez da ohikoa izango, eta kontatu egingo dut; agian langileei ez zaie gustatuko, baina kontatu egingo dut: aurrekoan langileak etorri ziren gobernu talde honi zorionak eta eskerrak ematera. Publikoki egin zutela eta behar bat sentitzen zutelako, pertsonalki adierazteko. Eta hori da, seguru aski, nik urte hauetan eramango dudana pozik handienetako bat. Sektore feminizatu eta gutxietsi bat zaintzara dedikatzen dena, beste leku batzuetan grebak egin behar izaten dituzten bitartean, gobernu hau kudeatzen ari den bitartean bulegora etorri eta esatea: "behar dugu zuei eskerrak ematea". Guri eskerrak ematea da gaur onartzera goazen kontratuari bide ematea. Gaur onartzera goazen kontratu honek, gaur egun bermunizipalitzatu izan bagenu baino baldintza hobeak emango dizkielako langile hauei. Eta beti esaten dizuet, prest gaude elkarrekin lan egiteko, baina lan egin behar da. Lan egin behar da. Dokumentuak irakurri egin behar dira eta egiten diren proposamenak dokumentuetan dauden edukietan oinarritu behar dira. Eta argi gelditzen da, beste behin ere, zuek hemen ez duzuela hori egin.

Erronda itxi egingo dugu.

Jaione Aristregi: Orain adibide argi batzuk ditugu, eta horietan oinarrituko gara nola iritsi jakiteko bidea bilatzeko, gutxienez bermunizipalizazioak baldintza onenetan nola egin aztertzeke.

Alkatea: Beti eduki dugu eskua luzatuta, gu ez baikara orain hasi lanean. Aspalditik ari gara lanean eta badakizue.

Honekin bozkatzera pasako gara. Hernaniko Udalaren etxeko zaintza zerbitzuaren kontratua esleitzearen aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeak. Kontrako botoak? Ez dago. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. Hortaz, kontratua esleitzea onartu egiten da.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	17	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu)

		2. Itsaso Lekuona Legorburu (EhBildu) 3. Patxi Iburguren Etxeberria. (EhBildu) 4. Ainara Atorrasagasti Urizar. (EhBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EhBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena. (EhBildu) 7. Amaia Miner Canflanca. (EhBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre. (EhBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes. (EhBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso. (EhBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina. (EhBildu) 12. Andoni Amonarraiz Gómez. (EAJ-PNV) 13. Miryam Vazquez Vecino. (EAJ-PNV) 14. Mikel Gurutzeaga Zubillaga. (EAJ-PNV) 15. Ismael Ganchegui Gonzalez. (EAJ-PNV) 16. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 17. María Jesús Ruiz Ochoa (PSE-EE)
KONTRA	0	
ABSTENTZIOAK	2	1. Jaione Aristregui Cao. (Elkarrekin Podemos) 2. Lurdes López Gorrotxategi. (Elkarrekin Podemos)

HERNANIKO OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko Udalaren Etxeko Zaintza Zerbitzua kontratatzeko espedientea aztertu da. Prozedura ireki bidez izapidetu da espedientea.

Lizitazio epean hiru proposamen aurkeztu dira:

- AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL (IFZ: F95187183)
- MATIA GOXARA, S.L. (IFZ: B20737300)
- ARQUISOCIAL, S.L. (IFZ: B22183370)

Kontratazio Mahaiak 2025eko azaroaren 17an ospaturiko bikuran, lizitazioan onartutako aipatu hiru enpresen proposamen teknikoen balorazio txostenaren berri eman zuen **Zerbitzu Sozialak Saileko arduradunak, Klausula Administratibo Berezien Pleguko 9.1 atalean zehaztutako balio-judizio bidezko irizpideen arabera.**

Kontratazio Mahaiak balorazio txostena onartu zuen eta egiaztatu zuen Arquisocial SL enpresak ez zuela Klausula Administratibo Berezien Pleguko 9.1 atalean zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu (24 puntu) proposamen teknikoaren kalitatea baloratzeko atalean. Ondorioz, Arquisocial, SL enpresa lizitaziotik kanpo uzteko erabakia hartu zuen Zerbitzu Sozialak Saileko arduradunaren balorazio txostenean oinarrituta. Aipatu txostenean jasota daude lizitaziotik kanpo uztearen arrazoi eta azalpenak, zein balorazioaren zehaztapen eta azalpenak. Txosten hau erabakiaren oinarri eta motibaziotzat hartu zuen kontratazio mahaiak 39/2015 Legearen 88.6 artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Era berean, Kontratazio Mahaiak AURRERANTZ S.COOP. DE INICIATIVA SOCIAL, SLren aldeko esleipen proposamena egin zuen, honek lortu baitzuen puntuaziorik onena **Klausula Administratibo Berezien Pleguko 9.1 atalean zehaztutako balio-judizio bidezko irizpideen eta 9.2 atalean zehaztutako irizpide automatikoen puntuazioak batu ondoren.**

AURRERANTZ S.COOP. DE INICIATIVA SOCIAL enpresak kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du emandako epean, baita ere behin betiko bermea 86.008,00€koa.

Euskara zerbitzuak esleipena egiteko oniritzia eman du, ***Klausula Administratibo Berezien Pleguko 19.2 atalean zehaztutako hizkuntza betebeharrei*** dagokionez.

Horiek horrela Hernaniko Osoko Bilkurak gehiengoz erabaki du

Lehena.- AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL. enpresari (IFZ: F95187183) esleitzea Hernaniko etxeko zaintza zerbitzua, honako baldintza hauetan:

<u>Prezioa:</u>	LANEGUNAK/Orduko prezioa	JAIEGUNAK/Orduko prezioa
	Eskaintza (BEZ salbuetsita)	Eskaintza (BEZ salbuetsita)
1. urtea	32,750 €	41,000 €
2. urtea	36,100 €	45,250 €
3. urtea	39,750 €	49,700 €
4. urtea	43,850 €	54,900 €

Gastua Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

Etxez etxeko laguntza zerbitzua: 1 1710.227.04.231.14 2026 (4679)

Bestelako baldintzak:

- Mediku kontsultetara edo erabiltzaileentzat funtsezkoak diren beste jarduera batzuetara laguntzea eta, etxean edo komunitatean akonpainamendu zerbitzua eskaintzea: 160 ordu
- Zaindua erdigunean ardaizten duen bizi-planak egitea, Zerbitzu Sozialetako profesional eta eragile komunitarioekin elkarlanean: 37 bitzitza-plan
- Indarrean duen Euskara plana betetzea
- Lizitazioa arautu duten ***Klausula Administratibo Berezien Pleguan eta Baldintza Teknikoen*** Agirian ezarritakoaren arabera beteko da.

Hasierako iraupena: urtebete. Kontratua ez da indarrean sartuko 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Bigarrena.- Esleipendunari eskatzea esleipena jakinarazten den biharamunetik kontaktzen hasi eta hamabost laneguneko epea igaro ondorengo bost egunetan kontratua elektronikoki sinatu dezala.

Hirugarrena.-Alkateari edo haren legezko ordezkoiari administrazio-kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

Laugarrena.- Kontratua gauzatzeko arduradun Zerbitzu Sozialak Saileko arduraduna izendatzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau Kontratatzaillearen Profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 63.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

5. 2026RAKO UDAL JABETZA PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkatea. -*Bost, sei eta zazpi puntuak ditugu jarraian. Hiru puntu, berez, aparte doazenak edo aparte bozkatu behar ditugunak, baina testuinguru eta lanketa baten baitan datozenak. Hau ere testuinguratu egingo dut. Hainbat ordenantza aldaketa batzuk txertatzera goaz, baina lanketa polit eta intentsio baten ondorioa den ordenantza aldaketa. Hemen berriz ere balioan jarri nahiko nuke eragile desberdinekin lan egitea, udal talde desberdinen artean lan egitea, Sagar eta Sagardo Mahaiko eragile guztiek adostutako ordenantza aldaketak dakartzkigulako. Hilabete luzeetan lantzen aritu garenak eta hauen bideragarritasuna ikusi duguna eta martxan jarriko duguna.*

Txotx garaiaz hitz egiten ari gara. Txotx garaia badakigu herri honentzat eta sagardo eta ostalaritza sektoreentzat eta gure kulturarentzat oso garrantzitsua den garaia dela, baina badakigu, baita ere, larunbatetan gehien bat etortzen den jende oldeak ere hainbat desoreka sortzen dituela eta hainbat ezinegon ere bai, kudeatu beharrekoak. Modu desberdinetan kudeatzen aritu gara eta neurri desberdinak jarri izan ditugu urteetan zehar, baina orain dela bizpahiru urte diagnostiko bat egin zen, diagnostiko horrek nolabait ondorio batzuk atera zituen Sagar eta Sagardoaren Mahaiko eragileek ontzat eman genituenak. Ondoren, beste lanketa bat egin da eta lanketa horietan ildo estrategiko batzuk definitu dira, ildo estrategiko horietatik ekintza plan bat osatuko delarik. Eta ekintza planaren garrantzitsuena zen, eta egingo ditugun ekintzak, denak ere, markatu ditugun helburuetan oinarria edo eragina izatea eta ez ekintza planak solte izatea inongo logikarik gabe.

Horrekin, hilabete luzeetako lana izan da eta horien emaitzetako bat da lan ildo bati eustea. Eta lan ildo horietako bat, nolabait, da bisitarien eta bertakoen arteko oreka hobetzearena. Hortaz, ofizialki izango litzatekeena udal jabetza publikoa okupatzeagatik tasa bat jarriko genuke. Tasa bat, nolabait ere, Hernanira datozen autobus antolatuei modu egokiagoan erantzun ahal izateko. Asko dira txotx garaiko larunbatetan etortzen diren autobusak, eta askotan talka egiten du Hernaniko eguneroko bizitzarekin. Ordenantza honetan jasotzen duguna da txotx garaiko larunbatetan autobus antolatu hauek Ibaiondon aparkatu beharko dutela eta deskargatu beharko dutela. Askotan gertatzen delako geltokietan zerbitzu erregularrei eragin egiten dietelako eta desajusteak sortzen direlako zerbitzu erregularreko ordutegietan. Eta honekin lortuko genukeena da jarriko dugun erreserba sistema baten bidez, Hernanira datozen autobusak jada jakitea Hernanin aparkatzeko plaza bat izango dutela. Plaza hauek guztiak Ibaiondo poligonoan izango dira, erreserbatu egingo dira, eta plaza horiek kudeatu ahal izateko eta ondo antolatu ahal izateko, horientzako tasa bat onartzera goaz honekin.

Kontraste desberdinak egin ditugu, eragileekin, udal taldeen artean... eta denok ontzat eman dugu 35 plazatik gorako autobusei egun osoko aparkalekua ziurtatzeagatik 100€-ko tasa bat jartzea eta 9-34 plaza bitarteko ibilgailuei berdin, egun osoko estazio bat erreserbatuta eta ziurtatuta edukitzeagatik, 60€-ko tasa jartzea.

Esan bezala, lanketa oso baten puntuetako bat da. Erabaki desberdinak agertzen ari garen plan integral baten barruan hau da bat, badakiguna oihartzuna izango duena, baina hau da bat beste askoren artean. Gaur tramite hau egingo dugu, jendaurrean jarriko dugu, datorren txotx garairako indarrean eduki ahal izateko.

Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko ba ote dagoen.

Ricardo Crespo: Guk aldeko bozka emango diogu. Batzuetan esaten badigute ere ez dugula proposamenik egiten, ni konbentzituta nago hori behin baino gehiagotan proposatu dugula. Orduan, Hernanin Txotx denboraldian dugun jendetza ordenatzeko oso modu egokia iruditzen zaigunez, eta horrekin jendetza horren ondorioak arintzen saiatuz, aldeko botoa emango dugu.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo. Ez dakit gainontzekoen zerbait baduzuen esateko.

Jaione Aristregi: Bakarrik esatea, Ricardok esan duen bezala, hau zen duela 3-4 urteko gure proposamenetako bat. Ez genion 100 euroko tasa deitzen, baizik eta autobusen sarbidea mugatzeko modua bilatzea. Beraz, eskertzekoa da azkenean horrelako neurri bat hartzea, herriaren lasaitasunerako.

Alkatea: Berriz ere esango dut, "proposatu genuen orain dela bost urte", baina ze lanketa ekarri zenuten? Ezer ez. Ezer ez. Eta proposamenak egiten duenari ere badagokio lanketa bat ekartzea, ez? Hemen desberdintasuna zein da, eta hau inportantea da: neurri batzuk ezartzen direnean

sortuko diren albo eraginaren azterketa bat ere behar dute, eta horrelako ezer ez zenuten egin. Tasa turistikoaz hitz egiten zen, tasa turistikoa ezin denean egin. Formulatu bat bilatu da eta zorionekoak izan gáitezen. Oso ondo proposamenak. Baina noski, proposamenak bota ditzakegu airera. Hemen egin da lanketa sakon bat eta inportanteena, badagoela ekintza hauetarako guztietarako ildo eta marko estrategiko bat ekintzei zentzu bat ematen diena. Eta hau da garrantzitsua: ekintza guztiek badutela zentzu bat, eragina dutela beste kontuetan, baina dena neurtzen dela. Utziko didazue hau esaten.

Ricardo Crespo: Milesker. Bai, proposamenak eta lanketak behar dira, noski. Baina badakizu zer gertatzen den, oposizioak ez duela baliabiderik. Teknikariek gobernu-taldeak eskatzen diena egiten dutelako, gobernu-programa gauzatu behar dutelako, jakina. Beraz, prest bazaude teknikariek oposizioaren proposamenen lana egin dezaten, eta barkatu, zuri bideratu natzaizu, baina gobernu-taldea prest badago teknikariek lanaldiaren zati bat oposizioko taldeen proposamenak aurrera ateratzeko erabil dezaten, ongi etorria izango da.

Alkatea: Eskerrik asko, Ricardo. Uste dut politika ulertzeko modu desberdinak dauzkagula. Guk egia da kudeatzen ari garenean eta behin proposamenak aurrera doazenean teknikoekin landu eta egin behar direla, baina guk proposamenak aztertzen ditugunean udal talde bezala eta askotan teknikorik gabe, proposamenak lantzen saiatzen gara. Eta gero kontrastea egiten. Horretaz hitz egiten dut.

Kontrajarri egiten zarete. Ulertzen baldin badugu oposizioan egotea dela etorri, proposamena egin eta joatea, eta gero kontran eskatzen duzue eta baloratzen duzue positiboki elkarrekin lan egitea... Hori diot, proposamenak egiten direnean gutxienez lanketa minimo bat behar dutela. Eta hori da, lan egiteko moduak ulertzeko desberdintasunak dauzkagula ziur aski.

Honekin bozkatzera pasako gara. Puntuz puntu joango gara. Bosgarrena azaldu dut eta gero lotuta doazen besteak azalduko ditut. 2026rako udal jabetza publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantzen aldatzeko proposamenaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Kontuhartzaileak aurkeztutako txosten tekniko-ekonomikoa (2025-11-05) kontuan hartuta.

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko azaroaren 27an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko osoko bilkurak aho batez erabaki du

Lehen. - Udal jabetza publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza aldatzea, 2026 urteko ondorioekin

Udal jabetza publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantzan 9 ernaskina sortzea ondorengo tarifekin eta horiek kudeatzeko arauekin:

09. TXOTX DENBORALDIKO AUTOBUSAK BAIMENDUTAKO EREMUAN GELDITU ETA APARKATU

	Tasa (€/ autobuseko)
Autobus handiak (35 plaza baino gehiagokoak, gidaria barne)	100
Autobus ertainak (9-34 plaza bitarte, gidaria barne)	60

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Tasa autolikidazioa eran ordaindu beharko da. Baimendutako eremuan gelditzeko eta aparkatzeko erreserba egiten den momentuan ordaindu beharko da tasa.
2. Alkate dekretu bidez urtero udalak onartuko du txotx denboraldiko epeak.
3. Erreserbako edozein datu aldatzeko udaltzaingoari jakinarazi beharko zaio. Erreserbatu den astearen ostegun arte onartuko dira aldaketak.
4. **Edozein arrazoirengatik** eta abisua alde aurretik jakinarazi den kasuetan soilik itzuli ahal izango da erreserba egitean ordaindutako tasa. Itzulketa erregistro bidez eskatu beharko du interesatuak.
5. **Erreserba kopurua mugatua izango da aparkatzeko lekuaren baitan.**

Bigarrena. - Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Hirugarrena. - Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Laugarrena. - Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

6. OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ETA TRAFIKO LEGE-HAUSTEENGATIKO ISUNAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Alkatea. - Seigarrena honekin lotuta dago. Espazio publikoa okupatzeagatik jartzen dugun tasa honek gero ere oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioak ere arauketa bat eskatzen du. 36. artikuluan aldaketa bat. Testua literalki irakurri beharrean, aipatuko dudana da pixka bat hasieran esan dudana. Honen helburua zer da: larunbatetan herriko ohiko zerbitzuak eta ohiko mugikortasunak inongo eragozpenik gabe lanean jarraitu ahal izatea. Hortaz, antolatutakoak eta salbuespen egoeran baimendu gabe dauden autobusek beraien karga-deskargak eta aparkatzeak Ibaiondon egin beharko dituztela. Esan bezala, beti ere, eta 36. artikuluan jasotzen da, Udalak salbuespenak jarri ahal izango dituela. Adibidez, herriko eragile batek antolatu du zerbait herrian eta autobusa sartu behar du edo herriko eragileei eragozpenik ez die sortuko aldaketa honek. Beti delako, eta lan-ildoetako bat delako Txotx garaian herriko eta herritarren ohiko bizitzan eraginik ez izatea. Hortaz, herriko eragileek autobus bat sartzea beharko balute, gaur egun egiten duten bezala, baimena eskatu eta arazorik ez litzateke egongo. Hori guztia jasotzen du 36. artikulua formalki erredaktatuta.

Ez dakit honen inguruan zerbait badagoen aipatzeko. Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta trafiko lege-hausteengatiko isunak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketaren aldeko botoak? Hau ere aho-batez onartzen da.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko udalerrian txotx garaian ematen den jendearen etorrera kudeatzeko, beharrezkoa ikusi da bi aldaketa partzial egitea bi ordenantzetan.

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko azaroaren 20an gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak **aho batez erabaki du**

Lehenengoa: Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta trafiko lege-hausteengatiko isunak arautzen dituen udal ordenantzaren 36. artikuluan aldaketari hasierako onarpena ematea eta testu hau eranstea bigarren paragrafo batean:

Urtarrileko azken-aurreko larunbatetik maiatzeko bigarren larunbatera arte (biak barne, eta soilik larunbatetan) debekatuta dago busak geratzea, aparkatzea eta zirkulatzea baimendutako eremutik kanpo (Ibaiondo Poligonoko bide nagusian 5. zenbakitik 27.eraingo), Hernaniko udalerrira osoan. Dena den, Hernaniko Udalak bestelako baimen bereziak emateko ahalmena izango du eskaerak aztertuta

ondoren. Debeku horretatik salbuetsita daude hiriko edo hiriarteko linea erregularretako autobusak, baldin eta behar den moduan seinaleztatutako geltoki baimenduetan gelditzen baldin badira.

Ondorioz, horrela geratuko litzateke aldaketarekin:

36. artikulua.

Egoerak hala eskatzen badu, trafikoa ordenatzeko neurri bereziak hartu ahal izango dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatzea edo murriztea, edo hiriko eremu batzuetarako sarrerak alde jakin batzuetatik bideratzea, edota aparkalekuak berrordenatzea.

Urtarrileko azken-aurreko larunbatetik maiatzeko bigarren larunbatera arte (biak barne, eta soilik larunbatetan) debekatuta dago busak geratzea, aparkatzea eta zirkulatzea baimendutako eremutik kanpo (Ibaiondo Poligonoko bide nagusian 5. zenbakitik 27.era), Hernaniko udalerrri osoan. Dena den, Hernaniko Udalak bestelako baimen bereziak emateko ahalmena izango du eskaerak aztertu ondoren. Debeku horretatik salbuetsita daude hiriko edo hiriarteko linea erregularretako autobusak, baldin eta behar den moduan seinaleztatutako geltoki baimenduetan gelditzen baldin badira.

Bigarrena: Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eta trafiko lege-hausteengatik isunak arautzen dituen udal ordenantzaren 36. artikulua aldaketaren hasierako onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

7. HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Alkatea. -*Eta zazpigarrena ere lanketa honekin batera datorrena da eta askotan gure artean hitz egin izan duguna udal taldeon artean. Seguru aski, gainera, herritar askoren artean ere komentatutako kontu bat da herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantza aldaketa bat egitea. Kasu honetan, izango litzateke pixagatik isunen aldaketa bat egitea. Guk orain arte ordenantza jarrita daukaguna da 100€ bitarteko isunek azkar ordaintzeagatik %50eko hobaria daukatela eta 100€-tik gorako isunek azkar ordaintzeagatik %70-eko hobaria. Gure elkarbizitza ordenantza kalean pixa egiteagatik isuna 200€-koa da. Hortaz, orain arte ordenantza eduki dugun moduan, azkar ordaintzeagatik 60 € ordainduko lirateke.*

Lekuz kanpo pixa egitea bada txotx garaian herri honetan dugun arazo handietako bat. Bada denok kezkatzen gaituen edo denok haserretzen gaituen kontu bat, eta nolabait bitartekoak jartzen badira ere, ikusten dugu bitarteko horiek erabiltzen ez dituzten pertsonak zigortu behar direla. Jarraituko luke pixen kasuan isunak 200€-koa izaten, baina aldatuko genukeena da %70eko hobaria izan beharrean %50ekoa izatea kasu honetan eta azkar ordaintzeagatik 100€ ordaindu beharko lirateke.

Aldaketa praktikan zein izango litzateke? 60 € ordaintzetik 100 € ordaintzera pasako ginatkeela, ulertzen dugulako eta uste dut denok bat egiten dugula honetan, lekuz kanpo daudela txotx garaian ikusten ditugun hainbat jokaera honi dagokionez.

Ez dakit honen inguruan badagoen zerbait aipatzeko. Ez? Bozkatzera pasako gara, orduan. Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketaren aldeko botoak? Aho-batez onartzen da.

Honekin esan, gaur onartu aurretik ezinezkoa izan dela Sagar eta Sagardoaren Mahaiaren deialdia egitea ostegunean egingo dela, eragile guztiekin kontrastatu da eta ulertzen dugunez seguru aski gaur onartu ditugun neurriek oihartzun handia izango dutela ere, hau guztia ondo azaltzeko ostegunean prentsa konbokatuta dugu hau ondo testuinguratu eta ondo azaltzeko.

Mikel Gurutzeaga: Zer esan duzu, ostegunean Txotx Mahaia dagoela?

Alkatea: Txotx Mahaia jada ez, Sagar eta Sagardo Mahaia. Bai, deialdia iritsiko zaigu abenduaren 4rako. Ez dakit iritsi den, ez dut posta elektronikoa ikusi. Ez dakit orain buruz esaten zer ordutan den. Abenduaren 4an, osteguna, 15:00etan. Eta gaur ez bada iritsi deialdia, iristear egongo da.

Esan bezala, honekin ez-ohiko deialdia denez eskaera eta galderen tarterik ez dago.

Jaione Aristregi: Galdera bat gai honen inguruan: prentsaurrekoa egiterakoan oposizioa ere hor egongo da?

Alkatea: Landu dezakegun kontu bat da. Ulertzen dugu neurri hau ez dela Udalak bakarrik hartu duena Sagar eta Sagardo Mahaiko eragile guztiak hartua dutena baizik. Landu eta hitz egin dezakegun kontu bat da.

Abenduko osoko bilkurara arte.

HERNANIKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko udalerrian txotx garaian ematen den jendearen etorrera kudeatzeko, beharrezkoa ikusi da bi aldaketa partzial egitea bi ordenantzetan.

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2025eko azaroaren 27an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Osoko bilkurak **ahoz** erabaki du

Lehenengoa: Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzaren 36. artikulua aldaketari hasierako onarpena ematea eta 1. zerbaki laugarren paragrafo bat gehitzea, honako hau jasoko duelarik:

Isuna kalean pixa egiteagatik bada, % 50eko murrizketarik aplikatuko da.

Ondorioz, horrela geratuko litzateke aldaketarekin:

36. artikulua

1.- Ordenantzaren 34.1 artikulua eranskinean jasotzen diren isunak behean adierazten diren murrizketak aplikatuz ordaindu ahal izango dira, baina isunei murrizketak aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da zigospedientea ireki dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 egunetan ordaintzea:

%50eko murrizketa 100 eurotik beherako isunentzat. %70eko murrizketa 100 eurotik gorako isunentzat.

Goian esandako murrizketek baliatuz egindako ordainketa arinek dakarte alegazioak egiteari uko egitea eta prozedurari ebazpen espresaturik egin beharrik gabe amaiera ematea, nahiz eta dagozkion errekursoak jarri ahal izango diren.

Isuna kalean pixa egiteagatik bada, %50eko murrizketarik aplikatuko da.

Bigarrena: Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzaren 36. artikulua aldaketaren hasierako onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

Hernanin 2025eko Abenduaren 02an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

*Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikokoaren bidez egiazta dezakezu.*

